



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Imanol Baleztena Elizalde.  
Leire Bazterrika Loiarte.  
Francisco Michelena Celayeta.  
Ezequiel Loiarte Santesteban.  
José María Michelena Erasun.

2015eko abenduaren 18an, 18:30etan, aparteko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. 2016KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.**

2016eko aurrekontua aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2016ko aurrekontuari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Aurrekontuaren zenbatekoa 260.948,18 eurokoa da dirusarrera eta gastuetan.

Gero, 2016eko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236 eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez, erabaki da:

1. Hasierako onespena ematea 2016ko plantilla organikoari.
2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubietako eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Kontu hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gainditurik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzizko urrats gainditurik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

Langileen izenen zerrenda

Idazkaria: hutsik.

Kontu hartzailea: hutsik.

Zerbitzu anitzetako langilea: O.A.S.. Maila: D. 2. gradua. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Antzintasuna: 2004/06/26.

Administrari laguntzailea: hutsik.

Administrazio-kontratudunen izenen zerrenda:

Idazkaria: M.J.B.T.

Kontu hartzailea: A.N.A.

Lan-kontratudunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: A.O.M.

## **2. ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIOAK 2016RAKO.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, aho batez (erregelamenduzko quoruma) erabaki da:

1. Honako zerga-tasa hauek onestea 2016 urterako:

- Hirilurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % 0,35a.
- Landalurraren gaineko kontribuzioa: katastroko balio berri eta garbien % 0,505a.
- Instalazio, eraikuntza eta obren gaineko zerga: obraren benetako kostu osoaren % 3a mantentzen da (exekuzio materialaren aurrekontua).



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

- Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: oraingo indize eta tasak mantentzen dira ere.

2. Ur banaketa eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko tasak mantentzea 2016 urterako, 2013ko azaroaren 21eko osoko kilkuran onetsi ziren bezala, 247 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan zirenak, 2013ko abenduaren 26an.

3. Auzolanetik libratzeko ordaindu behar den diru kantitatea mantentzea 2016 urterako: 50,00 euro ordaindu beharko da auzolan bakoitzeko.

4. "Zubietako Errota" izeneko ekomuseora sartzeko kuotak mantentzea 2016 urterako:

Helduak: 3,00 euro/lagun.

15 lagun baino gehiagoko taldeak. 1,50 euro/lagun.

Eskolako umeak, ikasleak eta erretiratuak: 1,50 euro/lagun.

Umeak, 8 urte bitartekoak eta taldean ez doazenak: dohainik.

5. Erabaki honek 2016ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izanen du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

6. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan.

### **3. 2015EKO AURREKONTUAREN ALDAKETA.**

2015eko aurrekontu orokorrean kreditu aldaketa egiteko 2 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabaki da:

1. Hasierako onespina ematea kreditu aldaketa egiteko espedienteari (inbertsioak Errotan).

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko epean.

### **4. HIRIGINTZA PLANGINTZA.**

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak xedatzen duen prozedura jarraitu eta gero, 2015eko urtarrilaren 21ean egindako osoko bilkuran, behin-behineko onspina eman zitzaion Zubietako Udalaren Plan Orokorrari.

Espediente osoa aurkeztu zen Sustapen Departamentuan, behin-betiko onestea eskatuz.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Jarraian, txosten hauek eman ziren Udalari errekerimenduak eginez: Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzako Zerbitzuarena —hirigintza-planeamenduko txosten orokorra behin betiko onespenerako —; Kantauriko Ur-Konfederazioarena; Ingurumen eta Urako Zuzendaritza Orokorrarena; Kulturako Zuzendari Orokorrako Ondare Arkitektonikoaren Sailarena (Vianako Printzea Erakundea); Herri-babesako Zuzendaritzarena; Energia, Meatzeak eta Industri Segurtasuneko Zerbitzuarena.

Txosten horien eskakizunak sartu dira Plan Orokorrean, Zubietako Udalaren Plan Orokorraren Testu Bategina osatuz.

Aurrekinak ikusirik eta arkitekto-erredaktoreen txostena eta Testu Bategina aztertu ondoren aho batez erabaki da:

1. F.J.C.S.M. jauna eta M.U.F. andreak egindako Zubietako Udalaren Plan Orokorraren Testu Bategina onestea. Behin-behineko onespentzat hartzen da erabaki hau.

2. Testu Bategina bidaltzea Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Departamentura, behin-betiko onespenerako.

Eta bertzerik ezean, 19:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.